

ARTAZU EGUNA 2025 Arrosan

Urriaren 4an abiatu dira Artazuko lagunak Arrosara. Bi herrien arteko ahaidetasuna eta adiskidetasuna ospatu dute bigarren bez. Batzuk asteburua pasatzera joan dira eta beste hainbat autobusez. Osotara 97 pertsona hurbildu dira Baxe Nafarroako herri xarmantaraino.

El 4 de octubre las gentes de Artazu se han acercado a Arrosa. Por segundo año consecutivo los dos pueblos han celebrado su parentesco y su relación de amistad. Un grupo de Artazu ha pasado el fin de semana en Arrosa y el resto ha acudido en autobús. 97 personas han acudido a Arrosa.



Harrera zoragarri egin zaio Artazuko jendeari pilota plaza handian: kafe beroa eta bixkotxa goxo-goxoa eskaintzarekin hasi da eguna. Eta bixkotxa jaten ari den bitartean txalapartarien antzinako erritmoak heltzen dira jendearengana. Gozamen hutsa izan da!

Una acogida sin igual han recibido los artazuarras en la plaza: café caliente y bizcochos variados. Y mientras se degustan los sabrosos productos los txalapartaris deleitan al público con ritmos que transportan a los presentes a tiempos inmemorables.



Artazuarrentzat aureskuaren dantza eskaintzea ohorea izan da. Ohorea izan da Arrosako auzapezaren eskutik opari zizeldatua jasotzea ere bai. Herrietako armarrak eta arranoa daramatzan arte-lana urtez urte eskuz aldatuko da: aurten Artazuko Udaletxean egonen da eta datorrenean Arrosara itzuliko da. Eta horrela, beti. Artistari, zorionak!

El baile del auresku al ritmo del txistu ha sido un gran honor para los artazuarras como lo ha sido la talla en bajo relieve recibida, talla que año tras año cambiara de mano: este año permanecerá en Artazu y el 3 de octubre de 2026 pasará a Arrosa. Y así, siempre. Gracias y enhorabuena al artista de la obra.



Harrera egin ondoren ibilaldi zoragarria egin da herrian barna, musika, jana eta edariekin. Karrikaz karrika ibili gara; herriaren historia kontatu digute, txokoak miatu ditugu eta poliki-poliki herria ezagutzen aritu gara.

Una vez hechos los primeros saludos, se ha realizado un bonito recorrido guiado por el pueblo acompañados de música; y también comiendo y bebiendo. Nos han hablado de la historia del pueblo y hemos visto diferentes parajes.



Hitz egin digute bertako mitologiak inoiz Arrosa herriak lamien bisita eduki baitzuen. Lamiak uretan edota ur bazterretan bizi dira, jenioak dira. Hauek beti harremana ona eduki omen dute gizakiekin. Diotenez, haiei esker eraiki zen eliza Larlaren maldetan; eta ezagunago denez, Arrosako zubiarena ere bai.

Nos han hablado sobre la mitología, ya que Arrosa ha recibido la visita de los laminas, vinculados al agua y a la oscuridad; son genios de la mitología vasca que siempre han mantenido buenas relaciones con los humanos. En Arrosa se les atribuye la construcción de la iglesia al pie de las laderas del Larla y, la más conocida, la del puente de Arrosa.

“Erase una vez un albañil que debía construir un puente... El puente de Arrosa. El Ayuntamiento le impuso un plazo que debía respetar, ya que ese puente era necesario para el buen funcionamiento del pueblo. El albañil se puso manos a la obra, pero el trabajo era duro y, a pesar de su buena voluntad, la fecha límite llegaba a su fin.

Una noche apareció el diablo. El albañil hizo un trato endiablado: el diablo con ayuda () Al final fue su esposa quien le sacó del apuro... () ¿No le falta todavía hoy una piedra al puente de Arrosa sobre el río Nive).



Eta jarraitu dugu ibilaldia. Paisaia berdea: goizean eguzkitsua, baina arratsalde partean euria aritu du. Karrikak, eskola, gaztetxea ... Kartelak ipinita ikusi eta irakurri ditugu. Horrela jakin dugu, esate baterako, zenbat ikasle dauden, zenbat neska, mutilak, zer ikasten duten ...

Y hemos seguido el recorrido. Paisaje verde. Hemos tenido una mañana soleada y una tarde lluviosa con xirimiri. Calles, la escuela, el gaztetxe ... Han colocado carteles explicativos que nos ayudan a conocer el pueblo. Por ejemplo, los carteles de la escuela hablan de los estudios que cursan etc.





Herriko eta herriko jendearen argazkiak ikusten, pintxoak jaten, edaten ... pasatu dugu. Pilotaleku zaharrean. Solasa izan da nagusi.

Observamos las fotografías expuestas, degustamos los variados pintxos y caldos amablemente ofrecidos. Pero lo más importante: la conversación.



Alde batetik Txalaparta; eta beste aldetik, herriko musikariak txapela gorriarekin.

Por un lado, la txalaparta; y por otro lado, los originales músicos de Arrosa, con txapela roja.



Herriko historia kontatua, panelak idatziak euskaraz, españolez eta frantzez. La historia del pueblo contada en paneles en euskera, en español y en francés.





Hiru etxetan egindako gaztak dastatu ditugu. Eta ez dira txikitan ibili gazta eskintzerakoan, pilo bat baitzen gure aurrean. Kalitate eta zapore handiko gaztak, bertako ekoizleen produktoak dastatzeko gustua eduki genuen!

Hemos degustado los quesos hechos por tres productores de tres casas de Arrosa. Y no se han andado en chiquitas, pues hemos tenido un montón de queso dispuesto para degustarlo. Ha sido un placer.



Buen maridaje: Vino y queso.

Gazta eta ardoa: parekatze zoragarria.



Arrosako Udaletxea; Baxe Nafarroan eta Iparralden,
Udaletxeari “Herriko Etxea” esaten zaio.

En la Baja Navarra y en todo Iparralde al Ayuntamiento se
le dice “Casa del Pueblo”.



Soka handi hau Artazutik eraman da Arrosara autobusez.
Esta sog a gorda se ha transportado desde Artazu hasta Arrosa.



Bazkaldu aurretik denok tiraka hasi ziren. Artazukoak txapeldun. Prestatuago ziren sokaren jabeak baitziren. Lagundu behar izan zieten arrosatarrei.

Antes de comer: sokatira. Todo el mundo bat bi eta hiru, tira que tira. Los de Artazu ganaron pues estaban sobre aviso, a la gente de Arrosa les pillaron de sorpresa.



Eta indar guztia xahutu ondoren:
Y después de gastar toda la energía:







Musika talde gaztea eta denon gustukoa, dantza eta kantuak





Eskerrik asko Arrosa.

Eta eskerrik asko argazkilariei: Maneli eta Alvarori.